

**ALKATETZA
DEKRETUA**

2022 000000848

Espediente-zenbakia: 2021/IDA_ERA_0189

Xedea

2021. urteko "Mareak" jaialdia antolatzeko MB2000 zerbitzu sozio-kulturalak alkartearionartutako zuzeneko dirulaguntzaren azken zatia ordaintzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2021ko abuztuaren 27ko 3.306 Alkatetza Dekretuz, 2021. urtean "Mareak" jaialdia antolatzeko zuzeneko dirulaguntzea bideratzeko, MB2000 zerbitzu sozio- kulturalak alkarategaz hitzarmena sinatzea onartzea erabagi zan.

Bigarrena: Hitzarmena 2021ko irailaren 13an sinatu zan eta horren arabera, dirulaguntzaren lehenengo zatia ordaindu zan.

Hirugarrena: 2022ko urtarrilaren 26ko 975 Sarrera Erregistro bidez, MB2000 zerbitzu sozio-kulturalak alkarateg, dirulaguntza justifikatzeko dokumentazinoa aurkeztu eban.

Argudioak

Lehen: Nahiz eta 2022ko urtarrilaren 27an Idazkaritzako AOTk informatu MB2000 aurkeztu duela beharrezko dokumentu guztiak bigarren zatia ordaintzeko; kontuhartzaileak bere desadostasuna agertu du proposamenarekin kontuan hartuta gastuaren aurreko fasea fiskalizatu gabe gelditu zela.

Bigarrena: Egia da fiskalizatu gabe sinatu zela Marea jaialdiko hitzarmena, baina arrazoia gertakari hori sortzeko izan da kontuhartzailearen oporrak. Bera ez egonean ez zan egon inor fiskalizatzeko, eta jaialdia aurrera atera beharra egon da.

Erabakia

Hori guztia dala eta, honakoa erabaki dot:

Idazkaritzako AOTk 2022ko urtarrilaren 27an aurkeztutako erabaki proposamena onartzea, hau da:

LEHENENGOA: 2021. urtean "Mareak" jaialdia antolatzeko, MB2000 zerbitzu sozio-kulturalak alkarategi onartutako zuzeneko dirulaguntzaren azken zatia onartzeko, Tokiko Gobernu Batzarrarengan delegatutako ahalmena abokatzea alkategak zuzenki eroateko, erabagia hartzeko dagoen premiatasuna kontuta eukita.



BIGARRENA: 2021. urtean "Mareak" jaialdia antolatzeke, MB2000 zerbitzu sozio-kulturalak alkatetari onartutako zuzeneko dirulaguntzaren azken zatia onartzea eta ordaintzeko agindua emotea Ekonomia Sailari.

HIRUGARRENA: Hurrengo Tokiko Gobernu Batzarrean eta Osoko Bilkurean erabagiaren barri emotea.

Oharra: sinadurea eta data orri-oinean .



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E6000903DF00P6T1S4W8M0N1

Sinadurea eta data

ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 23/03/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 23/03/2022
14:55:52

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0189

Fecha: 09/08/2021

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea:

Erregistro nagusia

